



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ALKATE LEHENDAKARIAREN DEKRETUA

Gaia: 2023ko ekitaldirako udal aurrekontuak. 2022ko ekitaldiko udal aurrekontuen luzapena.

Araba lurralde historikoko toki-erakundeek aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru-arauaren 50. artikulua arautzen du aurrekontuak luzatzeko erregimena, egoera automatiko gisa, aurrekontu ekitaldia hasten denean ekitaldi horretako aurrekontu orokorrak artean indarrean jarri gabe daudenerako. Artikulu horretan xedatutakoaren ildorik, 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden aurrekontuak luzatu beharra dago, salbu eta egun horretarako bukatu beharrekoak diren programa funtzional edo zerbitzuetarako kredituak eta ekitaldi horretan bakarrik jasotzekoak diren berariazko diru-sarrerak.

Indarrean den Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki, baldin eta ekitaldi bat hasten denean dagozkion aurrekontu orokorrak artean indarrean jarri ez badira, besterik gabe jo behar dira luzatutzat aurreko ekitaldikoak.

Sarreraren egoera luzatu egin da, 2023ko urtarrilaren 1.ean indarrean jarriko diren ordenantza fiskal eta prezio publikoen haritik zuzeneko eta zeharkako zergen, tasen eta prezio publikoen bitartez jasotzea espero den sarrerak aintzat harturik eta 2023ko ekitaldirako Udal Aurrekontuetan jaso dira, hasiera batean 2022ko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartu zirenak. Ordenantza Fiskalak Osoko Bilkuran bertan behin betiko onartu ziren eta 2023ko urtarrilaren 2ko ALHAOn argitaratuko dira. Diru-sarrera horien luzapenean, aurreikusitako zentsu-aldaketek kalkulatuak hartu dira kontuan.

IV. kapituluko —Transferentzia arruntak— eta VII. kapituluko —kapital-transferentziak— sarrerari dagokienez, indarrean dauden beste erakunde batzuekiko hitzarmenak hartu dira aintzat, eta azken aurrekontu-ekitaldietan errepikatu diren erakunde publiko eta pribatuak dirulaguntzak eta transferentziak.

V. kapituluan —Ondare-sarrerak—, 2022ko ekitaldiko behin-betiko kreditua luzatuko da.

VI. kapituluari dagokionez —Inbertsio errealak besterentzea—, 2023an gauzatuko diren 2022ko eragiketen ondoriozko diru-sarrerak luzatuko dira. Udalaren lurzoru-ondarearen salmentari dagokionez, 2022ko aurrekontuan ageri ziren eta hainbat arrazoirengatik gauzatu ezin izan diren kontzeptu berei eutsi zaie —2023an gauzatzeari espero den zenbatekoa—.

IX. kapituluko diru-sarrerak —Finantza-pasiboak— 2022ko ekitaldiko zenbateko berarekin luzatuko dira, eta inbertsioak finantzatzera bideratuko, Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiaren 6. artikuluan 9. puntuko arauen ildotik.



Gastuen egoerari dagokionez, otsailaren 9ko 3/2004 Foru-arauaren 50. artikuluan jasotzen diren lege-aginduak kontuan hartu dira, eta behin betiko kreditua luzatu da, eta ez, aldiz, 2022ko ekitaldian bukatzekoak ziren zerbitzu edo programa funtzionaletarako kredituak, ezta modu eskusiboan ekitaldi horretan jaso diren kredituekin edo bestelako berariazko diru-sarrerekin finantzatuta daudenak ere. Nolanahi ere, 2022ko aurrekontuan onetsitako konpromiso-kredituen 2023ko urteko kopuruan kontuan izan dira, 2023an gauzatzekoak ez direnak eta 2022an amaitutako proiektuen konpromiso-kredituak izan ezik.

Langile gastuak —gastu egoerako I. kapitulua— 2023ko aurrekontuan kredituari dagokion zenbatekoan luzatuko dira, Giza Baliabideen Sailak emandako kopuruen arabera, Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiaren 6. artikulua 9. puntuko arauen ildotik. Beraz, 164.019.752,10 euroan luzatuko dira urteko behin betiko kredituak.

Gastuen egoerako II. kapitulua, ondasunak eta zerbitzuak erosteko kredituei dagokiena, 163.355.357,35 euroko kopuruan luzatuko da, hau da, 2022ko abenduaren 31ko behin-betiko kreditua, salbu eta, kontratu-aldaketen, konpromiso irmoetan eta behar bezala eskuratutako betebeharretan edo 2023ko kredituan eragina izan dezaketen bestelako faktoreen ondorioz, luzapen-erregimena Gasteizko Udalaren 2023ko zirkunstantzia ekonomiko eta finantzarietara egokitzeko gastu-kredituari aldakuntzak egotz dakizkiokeen partidetan.

Finantza-gastuak —gastu egoerako III. kapitulua— 2023ko aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoaren arabera luzatuko dira, finantzaketa-eragiketetan aurrez finkatutako finantza-baldintzak eta partida horietan eragiten duten bestelako faktoreak aintzat hartuta. 2.476.433,00 euroko zenbatekoan luzatzen da.

Gastuen, dirulaguntzen eta transferentzia arrunten egoerako IV. kapituluko gastuetarako kredituak luzatzeko orduan jarraitu den prozedura izan da, oro har, aldianaldiko edo izaera errepikakorreko dirulaguntza eta transferentzia guztien abenduaren 31ko behin betiko kreditua luzatzea, salbu eta udal sozietate anonimo eta erakunde autonomoen kasuan; izan ere, horietan, administrazio-kontseiluek edo zuzendaritza-kontseiluek egindako aurreikuspenak eta hartutako erabakiak kontuan izan baitira. 49.613.902,79 euroko zenbatekoan luzatzen da.

Gastuen egoerako VI. kapituluko kredituei dagokienez —inbertsio-gastuak—, izaera errepikakorreko partidak bakarrik luzatuko dira, abenduaren 31ko behin-betiko kredituaren zenbatekoan, salbu eta 2023rako konpromiso-kredituetan jasota dauden VI. kapituluko inbertsio-proiektuak, zeinen zenbatekoa konpromiso-kredituan jasotzen dena izango baita. Luzatutako zenbatekoa 26.134.414,55 eurokoa da.

Gastuen egoerako VII. kapituluko kredituak —Kapital-transferentzien gastuak—, hainbat erakunderekin sinatuta dauden —eta indarrean dauden— hitzarmen eta akordioen arabera luzatuko dira, orobat kontuan izanik udal sozietateetako administrazio-kontseiluek onetsitako akordioak eta erakunde autonomoen kudeaketa-aurreikuspenak. Luzatutako zenbatekoa 4.003.651,26 eurokoa da.



VIII kapituluan, 2022ko aurrekontuan abenduaren 31an dagoen behin-betiko kreditua luzatuko da, 52.600,00 eurokoa.

IX. kapitulua —Finantza-pasiboen aldakuntza— 2023ko aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoaren arabera luzatuko da, mailegu-eragiketetan aurrez finkatutako finantza-baldintzak eta partida horietan eragiten duten bestelako faktoreak aintzat hartuta; guztira, 13.782.538,90 euroko zenbatekoa.

Horrenbestez, aurreko guztiaren ildotik, eta ikusirik Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiko 6. artikuluan —Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 3/2004 foru arauaren 50. artikulua eta 985/1992 foru arauaren 61. artikulua— ildo beretik— xedatutakoa, hauxe erabaki dut:

DEKRETUA

LEHENA.- Gasteizko Udalaren 2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak luzatzen dira, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izan ditzaten ondorioak, harik eta ekitaldi horretako aurrekontu orokorrei behin betiko onespena eman arte; hain zuzen ere, 1. eranskinen ageri diren diru-sarrerara eta gastuen egoeretan adierazten diren kopuruetan luzatzen dira, hasiera bateko zenbatekoa 423.438.649,95 eurokoa delarik gastuen aurrekontuan, eta 427.160.597,05 eurokoa diru-sarreraren aurrekontuan. 2022ko Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudia luzatzen da, erabateko eraginak izan ditzan 2023an.

BIGARRENA.- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko I. kapituluko —langile-gastuak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 164.019.752,10 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 2. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko II. kapituluko —ondasun eta zerbitzu arruntak erostea— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 163.355.357,35 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 3. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

LAUGARRENA.- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko IV. kapituluko —transferentzia arruntak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 49.613.902,79 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 4. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

BOSGARRENA.- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko VI. kapituluko —inbertsio errealak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 26.134.414,55 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 5. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

SEIGARRENA.- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko VII. kapituluko —kapital-transferentziak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 4.003.651,26 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 6. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.



ZAZPIGARRENA.- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko VIII. kapituluko — finantza-aktiboen aldakuntza— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak 52.600,00 euroko kopuruan luzatzen dira.

ZORTZIGARRENA.- Gastuen egoerako III. kapituluari —Ogasun Sailaren organikoan sartutako finantza-gastuak— dagozkion ordainketa-kredituak gehienez 2.476.433,00 euroko kopuruan luzatzen dira, hori baita 2023ko ekitaldirako aurreikusitako finantza-kargari eta gainerako finantza-gastuei dagokiena. Gastuen egoerako IX. kapituluari —Ogasun Sailaren organikoan sartutako finantza-pasiboen aldakuntza— dagozkion ordainketa-kredituak gehienez 13.782.538,90 euroko kopuruan luzatzen dira, hori baita 2023ko ekitaldirako aurreikusitako mailegu-amortizazioari dagokiona.

BEDERATZIGARRENA.- 7. eranskinean zehazten dira 2023ko ekitaldirako eta hurrengoetarako konpromiso-kredituak.

HAMARGARRENA.- Baldin eta ekitaldi berrirako aurrekontu orokorrek ez badute jasotzen luzapen-dekretu honen bitartez baimendutako kredituetakoren bat jasotzen, edo kopuru txikiagoarekin jasotzen badute, dena delako kopurua eragindako programa funtzionalaren kontura baliogabetuko da, eta, hori ezinezko bada, Udalbatzak erabakiko du behar den doikuntza nola egin.

HAMAIKAGARRENA.- Ogasun Saileko zinegotziaren esku uzten da luzapen-dekretu honetan aurreikusten dena behar bezala gauzatzeko beharrezko diren neurriak eta ebazpenak oro hartzeko ahalmena, aurrekontu-aplikazioen banaketa barne, adierazten diren gehieneko muga barruan.

HAMABIGARRENA.- Udal erakunde autonomo eta sozietateek luzatu egingo dituzte 2023ko ekitaldiko eragiketa arruntetarako eta kapital-eragiketetarako gastu eta sarreraren aurrekontuak, udal aurrekontuan luzatzen eta luzapen-dekretu honetan jasotzen diren dirulaguntza arrunt eta kapital-transferentziak tarteko direla.

HAMAHIRUGARRENA.- Eman bekie dekretu honen berri udal sail, erakunde eta sozietateei, jakinaren gainean egon daitezen eta estu-estu bete dezaten.

Hala agintzen eta izenpetzen du Gasteizko Udaleko Alkate Lehendakariak, 2022ko abenduaren 30ean.

Gorka Urtaran Agirre
Alkate lehendakaria



ERANSKINAK:

1. Gastu eta sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera.
2. Langile-gastuak, sailez sail.
3. Ondasun eta zerbitzuak erosteko gastuak, sailez sail.
4. Transferentzia arruntak, sailez sail.
5. Inbertsio-gastuak, sailez sail.
6. Kapital-transferentziak, sailez sail.
7. Konpromiso-kredituak.



ANEXO Nº 1: ESTADO DE INGRESOS Y GASTOS

CAPÍTULO INGRESOS	IMPORTE
1- Impuestos directos	93.010.000,00
2- Impuestos indirectos	11.467.111,00
3- Tasas y precios públicos	61.354.498,36
4- Transferencias corrientes	232.647.123,27
5- Ingresos patrimoniales	921.000,00
6- Enajenación de inversiones	9.135.154,42
7- Transferencias de Capital	7.375.710,00
8- Activos financieros	0,00
9- Pasivos financieros	11.250.000,00
TOTAL INGRESOS	427.160.597,05

CAPÍTULO GASTOS	IMPORTE
1- Gastos de Personal	164.019.752,10
2- Compras y B. Corrientes	163.355.357,35
3- Gastos Financieros	2.476.433,00
4- Transferencias Corrientes	49.613.902,79
5- Crédito Global	0,00
6- Inversiones reales	26.134.414,55
7- Transferencias de capital	4.003.651,26
8- Activos financieros	52.600,00
9- Pasivos Financieros	13.782.538,90
TOTAL GASTOS	423.438.649,95

SUPERAVIT 3.721.947,10



ANEXO Nº 2: GASTOS DE PERSONAL

DEPARTAMENTO	IMPORTE
1 ALCALDÍA Y RELACIONES INSTITUCIONALES	6.649.185,42
2 TERRITORIO Y ACCIÓN POR EL CLIMA	7.021.880,49
3 SEGURIDAD CIUDADANA	37.999.448,99
4 HACIENDA	6.364.249,02
8 PROMOCIÓN ECO., EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO	6.727.936,45
9 RECURSOS HUMANOS	3.589.546,03
10-16 ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL	23.347.289,86
11 POLÍTICAS SOCIALES, PERSONAS MAYORES E INFANCIA	27.926.471,58
13 INTERVENCIÓN GENERAL	510.625,46
15 MOVILIDAD Y ESPACIO PÚBLICO	10.403.820,78
18 PARTICIPACIÓN, TRANSPARENCIA Y CENTROS CÍVICOS	13.507.966,52
23 EDUCACIÓN Y CULTURA	12.698.449,98
24 DEPORTE Y SALUD	4.885.550,06
90 OTROS	2.387.332,46
TOTAL	164.019.753,10



ANEXO Nº 3: ADQUISICIÓN DE BIENES Y SERVICIOS

DEPARTAMENTO	IMPORTE
1 ALCALDÍA Y RELACIONES INSTITUCIONALES	3.318.258,22
2 TERRITORIO Y ACCIÓN POR EL CLIMA	43.802.989,71
3 SEGURIDAD CIUDADANA	1.026.219,49
4 HACIENDA	9.399.458,18
8 PROMOCIÓN ECO., EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO	6.844.652,28
9 RECURSOS HUMANOS	789.959,94
10-16 ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL	26.386.980,15
11 POLÍTICAS SOCIALES, PERSONAS MAYORES E INFANCIA	33.390.631,58
13 INTERVENCIÓN GENERAL	
15 MOVILIDAD Y ESPACIO PÚBLICO	18.594.603,05
18 PARTICIPACIÓN, TRANSPARENCIA Y CENTROS CÍVICOS	3.416.400,98
23 EDUCACIÓN Y CULTURA	7.976.205,39
24 DEPORTE Y SALUD	7.770.880,38
90 OTROS	638.118,00
TOTAL ADQUISICIÓN DE BIENES Y SERVICIOS	163.355.357,35



ANEXO Nº 4: TRANSFERENCIAS CORRIENTES

DEPARTAMENTO	IMPORTE
1 ALCALDÍA Y RELACIONES INSTITUCIONALES	1.836.275,00
2 TERRITORIO Y ACCIÓN POR EL CLIMA	145.000,00
3 SEGURIDAD CIUDADANA	
4 HACIENDA	21.783.200,00
8 PROMOCIÓN ECO., EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO	4.784.770,01
9 RECURSOS HUMANOS	40.462,62
10-16 ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL	
11 POLÍTICAS SOCIALES, PERSONAS MAYORES E INFANCIA	15.249.743,91
13 INTERVENCIÓN GENERAL	
15 MOVILIDAD Y ESPACIO PÚBLICO	183.000,00
18 PARTICIPACIÓN, TRANSPARENCIA Y CENTROS CÍVICOS	304.000,00
23 EDUCACIÓN Y CULTURA	3.736.757,19
24 DEPORTE Y SALUD	1.550.694,06
90 OTROS	
TOTAL TRANSFERENCIAS CORRIENTES	49.613.902,79



ANEXO Nº 5: INVERSIONES REALES

DEPARTAMENTO	IMPORTE
1 ALCALDÍA Y RELACIONES INSTITUCIONALES	307.500,00
2 TERRITORIO Y ACCIÓN POR EL CLIMA	6.899.118,77
3 SEGURIDAD CIUDADANA	222.604,88
4 HACIENDA	1.101.000,00
8 PROMOCIÓN ECO., EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO	735.842,00
9 RECURSOS HUMANOS	13.500,00
10-16 ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL	4.831.434,00
11 POLÍTICAS SOCIALES, PERSONAS MAYORES E INFANCIA	615.000,00
13 INTERVENCIÓN GENERAL	
15 MOVILIDAD Y ESPACIO PÚBLICO	9.001.768,25
18 PARTICIPACIÓN, TRANSPARENCIA Y CENTROS CÍVICOS	1.610.000,00
23 EDUCACIÓN Y CULTURA	474.500,00
24 DEPORTE Y SALUD	322.146,65
90 OTROS	
TOTAL INVERSIONES REALES	26.134.414,55



ANEXO Nº 6: TRANSFERENCIAS DE CAPITAL

DEPARTAMENTO	IMPORTE
1 ALCALDÍA Y RELACIONES INSTITUCIONALES	
2 TERRITORIO Y ACCIÓN POR EL CLIMA	490.000,00
3 SEGURIDAD CIUDADANA	
4 HACIENDA	2.020.900,90
8 PROMOCIÓN ECO., EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO	
9 RECURSOS HUMANOS	
10-16 ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL Y TRANSFORMACIÓN DIGITAL	
11 POLÍTICAS SOCIALES, PERSONAS MAYORES E INFANCIA	
13 INTERVENCIÓN GENERAL	
15 MOVILIDAD Y ESPACIO PÚBLICO	1.286.550,36
18 PARTICIPACIÓN, TRANSPARENCIA Y CENTROS CÍVICOS	
23 EDUCACIÓN Y CULTURA	206.200,00
24 DEPORTE Y SALUD	
90 OTROS	
TOTAL TRANSFERENCIAS CAPITAL	4.003.651,26



ANEXO 7 : CRÉDITOS DE COMPROMISO PRESUPUESTO PRORROGADO 2022 PARA 2023

CÓDIGO	DENOMINACIÓN	CRÉDITOS DE COMPROMISO		
		TOTAL	2024	2025
0214 9211 62297	REHABILITACIÓN EDIFICIOS MPLES DCTVA.2012/2017 UE	2.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00
0350 1321 21900	RENOVACIÓN Y REPOSICIÓN DE EQUIPOS	300.000,00	150.000,00	150.000,00
0410 1513 73310	A ENSANCHE 21 PARA REHABILITACIÓN DE VIVIENDAS	2.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00
0821 4331 48175	CONVENIO CON VÍA PARA POTENCIAR ACTIV. DEL PASAJE	500.000,00	500.000,00	
0910 2210 22734	REGULARIZACIÓN SEGURIDAD SOCIAL	300.000,00	300.000,00	
1011 9204 62623	PLAN DIRECTOR E-ADMINISTRACIÓN	250.000,00	250.000,00	
1011 9204 62624	PLAN CONTRA EL FRAUDE FISCAL	400.000,00	200.000,00	200.000,00
1011 9204 62626	SISTEMA INFORMÁTICO POLICÍA LOCAL	100.000,00	50.000,00	50.000,00
1012 9204 62600	ADQUISICIÓN EQUIPOS INFORMÁTICOS	250.000,00	250.000,00	
1620 3421 62296	INVERSIONES EN INSTALACIONES DEPORTIVAS	1.000.000,00	1.000.000,00	
1620 9211 62204	INVERSIONES EN CENTROS Y LOCALES	620.000,00	620.000,00	
1620 9215 62303	RENOVACIÓN EQUIPOS DE GESTIÓN ENERGÉTICA	400.000,00	400.000,00	
152002 1533 60198	PLAN DIRECTOR DE INVERSIONES EN ESPACIO PÚBLICO	2.500.000,00	2.500.000,00	
1822 1533 60133	GASTEIZ HOBETUZ	3.000.000,00	1.500.000,00	1.500.000,00
	TOTAL	13.620.000,00	9.720.000,00	3.900.000,00